

ABELTZAINZAREN SEKTOREA EUSKADIN



Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreak gaur egun Euskadin bizi duen egoera hainbat pertsonak eta agentek elkarrekin eginiko lanaren emaitza da; orobat, faktore askok eragin dute, eta horien artean nabarmentzekoak dira nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta landa-garapenaren arloko politikak, euskal administrazioek aplikatu dituztenak (Jaurlaritzak eta foru-aldundiek).

Lan bateratu honen helburu izan da Elikagaien Segurtasuna eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren iraunkortasuna bermatzea, eta ekoiztako elikagaien atributu bikainak babestea eta hobetzea. Askotan, kalitate bereiziko marka bihurtzen dira, baita jatorri-izendapen edo adierazpen geografiko babestu ezagun ere.

EUSKAL ABELTZAINZAREN SEKTOREAREN GARRANTZIA

Eusko Jaurlaritzako estatistika zerbitzuen arabera, **2013an abeltzaintzaren ekoizpena guztira 149 milioi eurokoa izan zela zenbatetsi zen; hots, EAEko abeltzaintzaren ekoizpen guztiaren (449 milioi bat euro) % 33 inguru. Esne-behien sektorea da buru, eta ondoren du haragiarena.**

2000. urteaz geroztik, ekoizpenaren urteko balioa % 7 murriztu da, batez ere behi-esnearen prezioak behera (- % 11) eta behi-haragiaren balioak gora (+ % 16) egin dutelako. Horri gehitu behar zaio hainbat ustiategi desagertu direla azken 25 urteotan (zeuden guztietatik, hegazti-ustiatuegien % 52, behi-ustiatuegien % 60 eta txerri-ustiatuegien % 84,4), nahiz eta abeltzaintza-aziendaren arloan beherakada hain handia ez den izan (% 21 behi gutxiago, % 53 hegazti gutxiago eta % 61 txerri gutxiago). Hori sektorean gertatutako kontzentrazioaren eta profesionalizazioaren ageriko zantzutzat jotzen da.

Halere, abeltzaintzak euskal gizarteari egiten dion ekarpena elikagaien hornidura hutsetik harago doa, eta benetako inpaktua ezin da ekonomikoki bakarrik ebaluatu. Are gehiago, **menderik mende aztarnak utzi izan ditu gure kultur ondarean, eta oraindik ere pertsona asko daude lurraldearen kudeaketarekin konprometiturik, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren bidez, gure baserrietan.**

Lehenengo eta behin, **Euskadiko eremu zabaletako baldintza naturalak** (tenperaturen erregimena, prezipitazioak, lurzorua, orografia, etab.) ezin hobeak dira larreak, zuhaixkak eta baso naturalak hazteko, eta horiek basoko artzaintzako sistemen bidez kudea daitezke. Are gehiago, larre eta zuhaixkek estalitako azalera lurraldearen % 26 inguru da gaur egun, eta baso naturalek lurraldearen % 25 hartzen dute.



Hori dela eta, gure inguruan **artzaintza-sistema transhumanteak** agertu dira (**baita transterminanteak ere, udalerritik irten gabe**). **Oinarri dute altitude jakin batzuetako baliabide naturalen erabilera, eta tokiko arrazen aniztasun aberatsa ekarri dute.**

Horiek direla eta, latxa, karrantzarra, sasi-ardia, azpi-gorri, terreña, betizua, pirenaikoa, montxina, pottoka edo Arabako mendiko zaldia arrazako animalien ekarpena erabakigarria izan da aurrekoengandik jaso eta gaur egun

ABELTZAINZAREN/ANIMALIEN EKOIZPENAREN SEKTOREAREN EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA EAEn



gozatzen dugun paisaiari duen itxura emateko. Hain zuzen ere, **artzaintza-eremu tradizional** horietako asko **Natura 2000 Sarean daude gaur egun** (natur parkeak, KTGak, bereziki babestu beharreko arloak, etab). Sare horrek euskal geografiaren % 20 hartzen du gaur egun.

Beste alde batetik, egungo baldintza sozioekonomikoek (biztanleriaren dentsitatea naziokoa edo Europakoa baino askoz ere handiagoa izatea, nekazaritzako lurzoru erabilgarri gutxi egotea, gastronomia-ondarearen garrantzia, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko hurbiltasuna, ekoizleen helburuak eta lehentasunak, etab.) eragina dute ekoizpen-sistemak gero eta profesionalagoak izateari eta merkatuari gero eta gehiago begiratzeari dagokionez.

Beraz, elikagaien segurtasuna eta kalitatea lehentasuna izan dira administrazioentzat; hortaz, ondoren ikusiko denez, ahalegin handiak egin dira azken hamarkadetan horiek kontrolatzeko eta hobetzeko.



ANIMALIEN OSASUNA

80ko hamarkadaren hasieran abereen saneamendu-kanpainak egin ziren abeltzain, elkarte eta teknikarien artean, administrazioaren finantzazioarekin eta sustapenarekin, osasun-arazo nagusien eragina murrizteko. Orduz geroztik eginiko lan handiaren emaitza gisa, 2013an **behi, ardi eta ahuntzen bruzelosirik (B. abortus) gabeko eremu izendatu zen, ofizialki, EAE. Bestalde, 2013 hartan, esne-behien tuberkulosiak taldeen % 0,17ri bakarrik eragiten zion.**

Bestalde, zenbait programa ezarri dira atzemate lasterrerako edo animalien produktibitatean eragina duten beste prozesu batzuen (besteak Beste, paratuberkulosia, errinotrakelitis, beherako birikoaedoneosporosia behien artean, eta Q sukarra, bisnamaedia edo Border-en gaixotasuna ardien artean) eragina kontrolatzeko.

Gainera, oso zurrun ezartzen dira Nekazaritza Ministerioak emandako zuzentarauak, entzefalopatia espongiformeei edo mingain urdin gaixotasunari dagokionez; zehazki, zaintza epidemiologikoa, kontrola eta prebentzioa gauzatzen dira. 2001. urteaz gero, EAEn sakrifikatutako 24 hilabetetik gorako animalia guztiak Neiker-Tecnaliako segurtasun handiko instalazioetan aztertzen dira, Derion, eta emaitzak 24 orduren buruan ematen dituzte.



HOBKUNTZA GENETIKOA

Abere-aziendaren kalitateari dagokionez, 80ko hamarkadaren hasieran ezarri ziren, halaber, hobekuntza-programen oinarriak. Horien artean nabarmentzekoa da 1985ean Aberekin eta 1988an Ardiekin zentroak sortu izana: balio handiko semen-iturriak hornitzeaz arduratzen dira, esne-behiak eta -ardiak genetikoki hobetzeko, hurrenez hurren.

Hobekuntza-eskemen arrakastaren erakusgarri, nabarmentzekoa da laktazioen batez bestekoa 5.600 litrokoa zela 1990ean eta 9.733koa izan zela 2013an (EFRIFEn datuak), esne-behien kasuan. Gainera, **EAEn Frisoi-Holstein arrazan ikusitako bilakabideak gainditu egiten du Estatuan**

ABELTZAINZAREN/ANIMALIEN EKOIZPENAREN SEKTOREAREN EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA EAEn



izandako batez besteko orokorra, ebaluatutako parametro genetiko gehienetan (koipea, proteina, etab.). EAEn bakarrik ebaluatzen da erditzeko erraztasun maila.

Esne-ardien artean, apurka-apurka latxa arrazaren esne-espezializaziorantz jo da, nahiz eta tradizioz helburu bikoitzekoa izan. Gaur egun, urteko aurrerapen genetikoa % 3-3,5 artekoa dela zenbatetsi da, latxa arrazaren aldaeraren arabera, eta uste da guztiz erabakigarria izan dela edozein artalderen batez besteko ekoizpena bikoitzeko. Horiez gain, hobekuntza-eskeman hautatze genomikoa ezartzeak dakartzan aukerak dira aztergai, baita hautatze-karaktere berriak gehitu beharra ere.



Haragitarako behiei dagokienez, arraza puruen abeltzainen 15 elkarte daude (pirenaikoa, limousina, blonda, charolaisa, betizua, terreña eta montxina dira arraza nagusiak), eta haiek arduratzen dira datuak biltzeaz, errendimenduen kontrol-programak kudeatzeaz eta liburu genealogikoak egiteaz. Kasu honetan, hobekuntza-irizpidea ezartzeko, aintzat hartzen dira jaiotzeko pisua eta 210 egun betetzen dituenean duen pisua.

PRODUKTUEN KALITATEA

1988az geroztik, Kalitatea fundazioa (gaur egun HAZIren barnean dago) arduratu zen bereizgarriak sustatzeaz eta sortzeaz goimailako produktuak identifikatzeko eta, ondoren, produktu horiek kontrolatzeko eta ziurtatzeko. Hala sortu zen **Eusko Label marka**, guztira 17 elikagai identifikatzen eta bereizten dituen, guztiak ere EAEn ekoiztiak, eraldatuak eta/edo sortuak,

kalitate-, zehaztasun- eta berezitasun-ezaugarri jakin batzuekin. Produktu horietako bakoitzak bere araudi tekniko du, eta araudia betetzen dela bermatzeko kontrolak egiten zaizkio.

Esne-ardiei dagokienez, **esne-ekoizpen gehiena Idiazabal jatorri-izendapeneko gazta egiteko erabiltzen da** 1987az geroztik. Kalitate eta prestigio aitortuko produktua da, eta badira hainbat urte World Cheese Awards sarietako urteko edizioetan leku nabarmendua duela.



Ustez, **jatorri-izendapenari esker babestu eta kontserbatu dira tokiko arrazak eta ekoizpen-sistema**; are gehiago, zenbait ikerketa-lanek ebidentziak aurkitu dituzte: larreetan bazkatutako ardien elikadurak eragina du hala esnearen nola gaztaren koipe osasungarrien edukian.

Emailta hau da: esne-ekoizpenean espezializatutako kanpoko arrazak (assaf, lacaune edo awassi) EAEko ardi guztien % 2 baino gutxiago dira; beraz, alde nabarmena dago beste ekoizpen-arro batzuen aldean (Gaztela eta Leon batez ere).

Gaur egun, Idiazabal jatorri-izendapenak EAEko eta Nafarroako 500 artalde inguru babesten ditu, eta 122 ekoizle. Gehienak ekoizle artisauak dira, beren artaldeek ekoiztako esnea eraldatzen dutenak. Halaber, Artzai Gazta elkarteak integratzen dira. Elkarte horren helburuen artean, nabarmendu egin behar dira elkartekideei ematen zaien laguntza tekniko eta prestakuntza.

ABELTZAINZAREN/ANIMALIEN EKOIZPENAREN SEKTOREAREN EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA EAEn



2010ean ekoitzi zen Idiazabal jatorri-izendapeneko gazta gehien: 1.500 tona inguru. Gero, ordea, ekoizpenak behera egin zuen nabarmen. Alabaina, sektore horretarako Plan Estrategiko bat taxutu dute beheranzko joera horri buelta emateko, ekoizpenaren bolumena ahal den neurrian lehengora dadin eta gaztak iraun dezan.

Haragi-ekoizpenari dagokionez, “Euskal Okela” adierazpen geografiko babestuak bermea ematen dio EAEn jaiotako eta hazitako behi-aziendaren haragiaren kalitateari. Animaliak kontrolpean egon dira beren bizitzako fase guztietan, eta beren kalitatea dela-eta hautatu dituzte baimendutako hiltzeietan. Soil-soilik behar bezala identifikaturiko saltoki baimenduen bidez merkaturatzen dira.



Hauek dira animalia-jatorriko produktuak bereizteko gainerako kalitate-adierazleak: **“Euskal Esne Bildotsa”**, ardi latxaren edo karrantzarraren arrazako eta bularra modu naturalean hartutako esneko bildotsa dela adierazteko eta bermatzeko; **“Euskal Baserriko Oilaskoa”**; **“Euskal Baserriko Arrautza”**; **“Baserriko Txerria”**, aire zabalean hazitako animalien okela; **“Euskal Esnea”**, esne pasteurizatua; eta **“Eztia”**, Euskal Herriko baserrietan ekoiztutako ezti.

Hori dena, hein batean, **aire zabaleko ekoizpen-sistemak ezartzearen aldeko ekoizleen ardurari eta ekimenari** esker lortu da; izan ere, **konpromiso handiagoa dute baliabide naturalekin eta animalien ongizatearekin.** Ekoizleok Lumagorri (haragitarako oilaskoak ekoizten dituen elkarte), Euskaber (arrautzak ekoizten dituen

elkartea) eta Txerrizaleok (txerriena) elkarteetako kideak dira, eta hala eskakizun teknikoak nola ekoizteko, hiltzeko, merkaturatzeko eta halakoetarako sistemak zehazten dituzten araudiak dauzkate.



EUSKAL ABELTZAINZA SEKTOREAREN ANTOLAMENDUA

Hori guztia EAEko abeltzaintza-sektorearen beste alderdi bereizgarri bat da: hots, antolamendu-maila bikaina. Izan ere, adierazitako programa guztiak mamitzeko beharrezko zerbitzuak eman ahal izateko egiturak ditu.

Sektorea probintzietako ekoizpen mota guztietako abeltzaintza-elkarteen inguruan dago egituratuta, eta EAEn lurralde-federazio bateratuak daude. Elkarte horietako gehienak 80ko urteen hasieran eratu ziren, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, osasun- eta kontserbazio-programak ezartzeko eta tokiko arrazak genetikoki hobetzeko asmoz.

Illo horretatik, elkarteekin harreman estua dute **kudeaketa-zentroek (Abere Araban, Lorra Bizkaian, eta Lurgintza eta Abelu Gipuzkoan):** behar diren instalazioak, ekipamenduak eta langileak jartzen dituzte, ekoizleei eta elkarthei **aholku tekniko eta ekonomikoak emateko** animalien elikadurarekin, liburu genealogikoen kudeaketarekin, esne-kontrolarekin, intseminazio artifizialarekin eta abarrekin loturiko gaien inguruan.

ABELTZAINZAREN/ANIMALIEN EKOIZPENAREN SEKTOREAREN EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA EAEn



Era berean, **foru-aldundiek, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen primarioan eskumena duten organoak diren heinean, babesa ematen diote euskal abeltzaintza-sektoreari**: osasun-kanpaina ofizialak egiten dituzte, erregistroak antolatzen dituzte, aholkularitza teknikoko programak finantzatu eta bultzatzen dituzte, gorpuzkiak biltzeko zerbitzua ematen dute, teknika berriak aztertu eta ezartzen dituzte, sustapen- eta dibulgazio-programak gauzatzen dituzte, animalia-ongizateko edo -identifikazioko ikuskaritzak egiten dituzte...



Bestetik, **Eusko Jaurlaritzaren Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak nekazaritza eta elikagaien arloko I+G+b planifikatu eta sustatzen du nekazaritzako eta arrantzako I+G programak garatzea ahalbidetzen duten lanabes finantzarioen bidez**. Halaber, ikerketa-zentroen zientzia-lankidetzak sustatzen eta sendotzen du, nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaien arloan.



Euskal Herrian, nagusiki Neiker-Tecnalia, AZTI-Tecnalia eta EHU-UPV erakundeak aritzen dira nekazaritzaren, arrantzaren eta elikaduraren arloko ezagutza sakontzen eta teknologia berriak egokitu edo ezartzen.

Neiker-Tecnaliak, Nekazaritza Ikerketarako Euskal Institutuak, I+G+b-ren arloan dihardu nekazaritza-ekoizpenerako sistemen ekoizteko gaitasuna eta lehiakortasuna hobetzeko, batetik, eta haztegiak kudeatzeko teknologia

berriak garatu eta ezartzeko, bestetik. Abeltzaintzari dagokionez, hauexek izan dira lanaren ardatzak: ekoizpena eta animalia-ongizatea, baliabide naturalen kudeaketa, eta loturiko ingurumen-eraginaren ebaluazioa eta murrizketa.



AZTI-Tecnalia zentro teknologiko bat da, itsasoaren eta elikagaien ikerketan aditua. Elikagai-industriaren esku jartzen du lehiakortasun handiagoa emateko beharrezkoa den teknologia-berrikuntza, beti aintzat hartuta azken kontsumitzailearen asebetetze-maila. Hori dela eta, haien lan-ildoak honako hauetara bideratzen dira: elikagai berrien eta produktu eraginkor eta iraunkorren diseinua, eta elikagaien kalitatea, segurtasuna eta identitatea.



EHUri dagokionez, **Lactiker ikerketa-taldeak Arabako campusean dihardu, animalia-jatorriko elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren arloan**. Eta arlo horretan nabarmendu egiten da Euskal Herriko Unibertsitateko Análisi Sentsoialen Laborategia (LASEHU): Idiazabal jatorri-izendapeneko gaztaren kalitatea kontrolatzeko akreditatutako laborategia da.



2013an, Itsasmendikoi-k, IKTK eta Kalitatea fundazioak bat egin eta **HAZI** sortu zuten, **lehen sektorearen, euskal landa-eremuaren eta itsasertzaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna bultzatzeko**. Horretarako,

ABELTZAINZAREN/ANIMALIEN EKOIZPENAREN SEKTOREAREN EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA EAEn



batik bat, honako jarduera hauek gauzatzen ditu: I+B proiektuak, prestakuntza-jarduerak, ekintzailatza-estrategien garapena, berrikuntza-kulturaren sustapena, laguntzen kudeaketa, kontrola eta egiaztatzea... Prestakuntza-jarduerak direla eta, aipagarria da Arantzazuko artzain-eskola, estatuan aitzindaria. Eskola horri esker, gazte ekoizle askok egin dute bat esne-ardiaren sektorearekin. Beste alde batetik, esne-behie dagokienez, aipatzekoa da Kaiku Coop kooperatiba: 432 abeltzainek (batik bat EAEkoek eta Nafarroakoek, baina baita eremu mugakideetakoek ere) ekoizten duten esnea biltzeaz eta merkaturatzeaz arduratzen da, eta partaidetza dauka Iparlat SAre eta Kaiku Food Corporation SLren kapitalean.

hazi

Landa eta itsas ingurunearen
garapenerako Eusko
Jaurlaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno
Vasco para el desarrollo
del medio rural y marino

Behi eroen krisiaren ondorioz, 2001. urteko urtarilean, Eusko Jaurlaritzak **ELIKA fundazioaren sorrera sustatu zuen, Euskadin Elikagaien Segurtasunaren arloa hobetzen laguntzeko**. Hasiera batean, ELIKA elikagaien arriskuen ebaluazioaz eta alerten kudeaketaz arduratu zen; orduz geroztik, oso eginkizun garrantzitsua izan du administrazioei eta elikakateko eragileei aholkularitza ematen, eta kontsumitzaileei eta oro har gizarteari gai horien inguruko informazioa ematen.



Azkenik, eta ekoizpen ekologikoari dagokionez, sektoreak Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEK) sortu zuen 2007an.

ENEKEN helburua da ekoizpen ekologikoaren sistemen ezagutza eta aplikazioa zabaltzea eta Euskadiko produktu ekologikoen kontsumoa eta hedapena sustatzea.

Horrez gain, ENEKek nekazaritza eta elikadura ekologikoaren ekoizpena kontrolatzen eta ziurtatzen du, erkidegoko araudian ezarritako arauak betetzen direla bermatzeko. Sektore hau etengabe ari da hazten, eta, hain zuzen ere, helburua da are gehiago sustatzea Nekazaritza Ekologikoaren Sustapen Planaren (FOPE) esparruan. Plan hori Eusko Jaurlaritzak egin du Neiker eta Haziren bitartez eta ENEKEN laguntzarekin.



ERRONKAK ETA ZALANTZAK

Sektoreari eragiten dioten erronka eta zalantza nagusiak mota hauetan sailka daitezke: ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak.

Ekonomikoen artean, azpimarragarria da **behi-esnearen ekoizleei ordaintzen zaizkien prezioak behera ari direla egiten, eta input nagusiak (lekaleak, energia) aldatzen eta prezioak garestitzen ari direla**; izan ere, horiek zehazten dute abeltzaintzaren errentagarritasuna.

Ingurumeneko auziei dagokienez, ekoizleen kezkek zerikusia dute, batik bat, **simaurren, pixorraren eta ustategietan sortzen diren hondakinen** (esne-gazura, gorpuzkiak...) **kudeaketarekin eta fauna basatiarekin dituzten gatazkekin.**

Baina, gainera, agerikoa da ekoizpen-sistemak egokitu egin behar direla, neurri handiagoan edo txikiagoan, **klima-aldaketaren eraginei** aurre egiteko, eta gizarteak abeltzaintzarekin lotutako isuriak murrizteko eskatuko du.

Gizartearen ikuspegiaren arabera, **belaunaldirik edo lurra eskuratzeko erreleborik ezarekin eta bizi-kalitate hobearen eskakizunarekin** lotutako auziak ezinbestekoak dira jarduerak iraun dezan.

ABELTZAINZAREN/ANIMALIEN EKOIZPENAREN SEKTOREAREN EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA EAEn



Horrez gain, argi dago badirela beste auzi batzuk ekoizpen-sistemen bilakaera baldintzatuko dutenak, besteak beste: animalia-jatorriko elikagaien kontsumoarekin lotutako presioak edo abeltzaintzak giza elikadurara zuzenean bidera daitezkeen baliabideak (adibidez, zerealak) erabiltzeko duen lehiakortasuna.

Ezin ahaztu ditugu, azkenik, politika arloko zalantzak, batik bat, Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) ezartzearekin lotutakoak (behi-aziendaren esne-kuota kentzearen eragina, besteak beste); ezta administrazio arlokoak

ere: adibidez, nekazaritza- eta ingurumen-programak, araudi higieniko-sanitarioak eta abar ezartzeak nekazaritza-ustategien arduradunei eragiten dizkieten eragozpenak.

Erronkei aurre egin eta planteatzen diren aukerak baliatzeko, oinarritzkoa izango da gure abeltzaintzak sortzen dituzten zerbitzu ekosistemikoetara bideratutako ikuspegi holistiko, orokor eta sistemikoa garatzea (ekosistemen funtzionamendu egokirako ezinbesteko laguntza-zerbitzuak, prozedura naturalak arautzekoak, ondasunak edo zerbitzuak hornitzekoak edo kulturalak), eta haren iraunkortasunean laguntzea.

ERREFERENTZIAZKO AGIRIAK

- EAEko makromagnitudeak, 2013 (aurretiko datuak). Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa
- [EUSTAT](#): Abeltzaintza-ustategien kopuruaren bilakaerari buruzko datuak: 1989-2000
- [EUSTAT](#): Abeltzaintza-errolde buruzko datuak. 2014
- [EUSTAT](#): EAEko behi-esnearen ekoizpenari buruzko datuak. 2014
- [EUSTAT](#): EAEn ardi-esnearen ekoizpenari buruzko datuak. 2014
- MAGRAMA: Bruzelosiaren eta behi-tuberkulosiaren prebalentziaren bilakaera, autonomia-erkidegoen arabera, 2001 eta 2013 artean.
- EFRIFE: Jardueren memoria. 2013. urtea

ABELTZAINZAREN/ANIMALIEN
EKOIZPENAREN SEKTOREAREN
EGUNGO EGOERA ETA
BILAKAERA EAEn



Abeltzaintzari buruzko
informazio gehiago nahi
duzu?

[http://www.elika.eus/eu/ganaderia_
home.asp](http://www.elika.eus/eu/ganaderia_home.asp)

